

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko maiatzaren 1a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Iruñea • Txantrea auzoko jaiez gozatzeko aukera gaur, bihar eta etzi.

Manuel Sanz • «Almadian, puntakoen abilezian dago guztia».

• MIKEL SAIZ

Dantzan trebatuz

Nafarroan Nazioarteko Dantzaren Eguna dela eta, dantza eszenatokira igo da.

Egunotan protagonista da, baina inork gutxik daki atzean dantzariak egiten duen lanaren berri.

Prestaketa lan horretan dihardu Nafarroako Dantza Eskola Ofizialak. Gero eta harrera

hobea du, gainera.

Txantreako jaiek

 **CONSUM**


*Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu*

SAN KRISTOBAL KALEA, Z/G. - TXANTREA

Iruñea • Parrandan murgiltzeko: Txantreako jaiak

Jai batzordeak hainbat ekitaldi antolatu ditu gaurtik igandera arteko festan

Atzo arratsaldean hasi ziren Txantrea auzoko jaiak. Parrandak gaur eta asteburuan jarraituko du. Festazaleek jai batzordeak antolatu duen egitarau oparoaz gozatzeko aukera izanen dute: bertsolariak, kontzertuak eta herri bazkaria izanen dute, besteak beste.



SANDUZELAI AUZOKO JAIK IZAN ziren aurten ere goiztiarrenek Iruñean. Joan den asteburuan ospatu ziren, eta oraingoan Txantrea auzokoek hartuko dute haien lekukoa. Jaien antolakuntza lanetan ibiltzen den Txantreako Jai Batzordeak ekitaldiz jantzitako egitaraua prestatu du gaurko eta astebururako. Festak atzo arratsaldean hasi ziren, baina gaur abiatuko dira bete-betean. Jai batzordeak aurten hogei urte betetzen baditu ere, ez dute deus berezirik antolatu jailetarako. Josu Santesteban batzordeko kidearen ustez, ez zen beharrezkoa, egitaraua jadanik nahiko osoa delako.

Aparteko ekitaldirik ezean, festazaleak ez du aspertzeko betarik izanen. Gaur 9:00etan dianekin batera esnatuko dira Txantreako auzokideak, eta ondoren txirrindulari lasterketa izanen dute. Urtero legez, bi ordu geroago auzotik barna kalejiran aterako da Erraldoien konpartsa. Erraldoiek bihar eta etzi ere errepika-

tuko dute atera. Besterik ere izanen da gaur: arratsaldeko 6:00etan, txokolate jatea Ezkaba plazan, eta 10:00etan zenezuzkoa, beste ekitaldi batzuen artean. Bihar, berriz, beste hainbat ekitaldi izanen dira. Besteak beste, auzokideek sukaldetan trebezia erakusteko aukera izanen dute 14:30etan Irubideko zelaian egingen den kalderete lehiaketan. Gauez, 22:00etatik aurrera, Haizea Plazan arrazakeriaren aurkako gaua egingen da. Han izanen dira Cibay eta Tren Lento taldeak. Bertsuak entzuteko gogoia duenak, berriz, jo dezala ordu berean Auzotegi elkartera. Han aurkituko ditu bertsotan Jon Sarasua, Oihane Enbeita eta Xabier Silveira bertsolariak. Festak etzi bukatuko dira, eta eguna haurrentzako izanen da bereziki.



Erraldoien konpartsa egunero karrikaratuko da jaietan.

• JOXE LACALLE

Erraldoi eta buruhandi txikien konpartsa aterako da eguerdian auzoko kaleetatik.

Arratsaldean, 17:00etatik 19:00etara haurrentzako jokoak izanen dira Santa Teresa plazan, txokolate beroa eta guzti. Bestalde, txosnetan hainbat kontzertu antolatu dira. Gaur Tarzan, Corazon de sapo, Har dezan, Leihotikan eta DJs ariko dira 11:00etatik aurrera.

Auzokideek ordainduak

Txantreako jaiak hiru milioi pezetako aurrekontua dute (120.000 libera), eta gehienbat auzokideen eta bertako saltoki handi eta tabernen dirulaguntzekin ordainduak dira. Txantrean 22.000 lagun bizi dira eta jai batzordeak auzokideen partehartzea bultzatu nahi du. Josu Santesteban da antolatzailleetako bat, eta haren ustez hori lortzen da. «Saiatzen

gara guztien gogoen arberako ekitaldiak egingen eta asmatzen dugula uste dut, partehartzea handia izaten delako», dio. Ez dute ekitaldi berezirik antolatu, baina festa nahi duenak badaki asteburuan nora jo. Txantrearen hurrengo bilkura azaroan izanen da, orduan Txantrearen Eguna ospatuko baitute.

→ Irene Arrizurieta

Txantreako jaiak

XORROXIN IRRATIA Euskalduna hitza, bertakoa bihotza



Sarrerak betiko lekuetan salgai. Aitzinetik 800 Pta. Takillan 1.000 Pta.

Malatzak 2, larunbata ERRATZU, 8,30etan hasita
ZUP. BORROKAN,
PETTI, GUTARIKO BAT,
POTTOKA, RADICI NEL
CEMENTO eta KARGOL'S



YOSELEN
KAFETEGIA

Era askotako
pintxoak,
bokatak
eta afariak

Zorionak !!!

Ezkabako plaza - TXANTREA

XORROXIN IRRATIA
TABERNA



BOKATA
IRAULTZAILEAK
JAI AURRERA
ERAMATEKO

Lesaka
kalea, 5
TXANTREA

Jai zoriontsuak!

BENTXI
TABERNA



Zatoz eta
gustura jarri

EZKABA PLAZA - TXANTREA



ur dai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

DonGoyorik gabeko Iruñerías

Auzokideak salatzen ditut, beraiek darabilten telebistaren bolumena eta umeen oihuak. Nire etxeko erreabilitazioan aritu ziren profesional guztiak, arkitektoetatik hasiz azken iturginera arte, orain berogailu soil bat jartzeko obrak egin behar ditudalako. Polizi Nazionalak, gazteen ehizean lasai, eroso, modu dibertigarrian eta kopuru beldurgarrian ibiltzen direlako. Izenik gabeko Industria bat, Arga ibaiak jasotako isuriketa pozoitsuaren erantzulea. Parada militarri babesa eman zion helikoptero lerdoa. Alkatearen baimena. Herri Batasunak honi buruz kaleratutako ohar astun bezain odoltsua, eta parada militarra bera ere salatzen dut pailazokeri galanta baita. Hiritarrak ardi saldo bat bezala tratatzen dituzten Billabesak ere salatzen ditut bere utzikeriarekin kotxeen erabilpenaren aldeko kanpaina paregabea egiten dutelako eta, gainera, komunikatu bat kaleratzen duten bakoitzean mukizu negarti batzuen antzera agertzen direlako beti. Kotxeak ere, noski, hiria beraiekin aginduetara eraikitzen dutelako, eta gauza *naturalena* izango balitz bezala inposatzen zaigulako. Sanferminetako kartela kritikatzeko duten betiko jendaki aspergarriak salatzen ditut. Eta salaketa bikain, tinko, argi hauen guztien ondoren Nafarroako Gobernu edo Udala (behintzat) krisi larri batera eramaten ez badituzte intelektuaren papera gutxietsia dagoen seinale izango da. Zolaren garaia beste batzuk zirela, alegia. ●

Arribe • Dantzari Eguna izango da bihar

Hamargarren urtez ospatuko du Astunalde taldeak bere eguna

Astunalde Dantza taldea sortu zenetik, urtero antolatu izan du Dantzari Eguna. Bertakoekin batera, kanpoko beste dantza taldeak etortzen dira Araitz-Betelura.

URTERO, HERRI DESBERDIN batean antolatu ohi du Astunalde Dantza Taldeak Dantzari Eguna. Aurten, Arribeko herriak du bere esku festa honen antolakuntza. Orain arte maiatzaren lehenean ospatzen zen arren, Astunaldi egokiagoa iruditu zaio festa larunbatera atzeratzea. Horrela, jendearen parte hartzea erraztuko da. Herriarrak orain arte erantzun duten bezain ongi erantzungo dutela uste dute Astunaldekoek. Horretarako hainbat ekitaldi prestatu dituzte. Goiz-soinuak emango dio hasiera biharko jaiari. Lehenik eta behin, txistulariak arituko dira herriarrak esnatu nahian, eta gero, gaitariak egingo dute bide berbera. Hamar eta erdiak aldera bilduko dira, Arribeko plazan, festa honetan parte hartuko duten taldeak: Berastegiko dantza taldea, Iruñeko Ortzadar eta Astunalde bera, alegia. Gero, talde bakoitza herri batera joango da. Hala, Berastegikoak Atallun arituko dira 11:00etatik aurrera, eta Ortzadarkoak, aldiz, Beteluko enparantzana.

Milagros Alzugarairi omenaldia

Ordu horretan, Arriben, meza izango da Milagros Alzugarairi omenez. Milagros, bere alaba Mila Peredarekin batera, taldearen sortzailea izan zen, eta, hil zenetik, urtero eskaini ohi da meza bat bere ohorez. Gero, meza bukatutakoan, Astunaldekoak arituko dira enparantzana. Horren ostean, berriro ere denak Arriben bilduko dira, bazkaltzeko. Arratsaldean Gus txontxongilo taldeak eskainiko duen emankuntzarekin amaituko da aurtengo Dantzari Eguna. Lehen Dantzari-Txiki eguna izan ohi zena, egun Dantzari Eguna da. Garai batean dantzari guztiak haur txikiak izaten ziren, baina gaur egun adin mugarik ez da jartzen. Garai hobeak ezagutu izan ditu hamabi urte betetzeko zorian den Astunalde Dantza Taldeak. Hasiera haieran, ia-ia bailarako haur eta gaztetxo guztiak aritzen ziren dantzan. Egun, ordea, txiki-txikienek bakarrik dihardute lan horretan.

Talde honen sortzaile izan ziren Milagros Alzugarai eta Mila Peredari esker, berez Betelukoak ziren bi dantza berreskuratu ahal izan ziren: Beteluko Ingurutxo eta Karrika-dantza. Azkeneko hori galtzear zegoen, herriko zaharrek baino ez zutelako ezagutzen. Orain jende anitzek ezagutzen du.

→ Urko Aristi



Joan den urteko Dantzarien Eguna Arribeko plazan.

● MAILOPE

Lesaka

Gazte Eguna eta Euskal Jaia

ASTEBURUA EKINTZAZ BETEA EGONEN DA LESAKAN, GAUR EGINEN DEN GAZTE Egunarekin eta igandeko Euskal Jaiarekin. Gazte Asanbladak antolatutako Gazte Egunak egun osoan zehar makina bat ekintza bilduko ditu. Goizeko 11:00etan bikotekako pilota txapelketaren finalak jokatuko dira. Arratsaldeko 3:00etan mus txapelketa jokatuko da eta bi ordu beranduago trikitilari gazteen txapelketa eginen da. 19:00etatik aurrera Maialen Lujanbio, Xabier Silveira eta Xabier Legarreta bertsolariak ariko dira. Ondoren, kalejira poteoa eginen da ostaluetan barrena, txarangaren laguntzaz. Arratsean, aldiz, parkean bilduko dira gazteak, Bittiriako parkean. 22:00etan kontzertua emanen dute Inadaptats, Kashbad, Etsaiak eta Etzakit taldeek.

Igandean, bertalde, Tantarumairu dantza taldeak antolatuta, VI. Euskal Jaia eginen da. Sei dantza talde ariko dira: Tantarumairu eta Iraun taldeak, Falcesko dantzariak, Portugaleteko Berritzasuna, Orioko dantzariak eta Lasarteko Erketz dantza taldekoak bilduko dira. 11:30etan txistularien kalejirarekin hasiko da eguna, eta 12:00etan izanen da desfilea. → Jon Abril

zubian barna

BINGEN AMADOZ



Zapaltzaile eta zapalduak, baztertzaila eta baztertuak. Bizitza tokatu zaigun gizarteko alor guztietan ematen den dikotomia larria. Gaurko eguna langilearena izanik, berriz, lan munduan ezagutzen dugun lubaki horren adarrak izan behar du aztergai.

Normalean elkarrekin egotea aukeratu ez duten jendarteko biltokia izan ohi dugu lantegia, eta bertan sekulakoak dira sortzen diren botere-nahiak, zapalaketak eta borrokak. Bertan ematen dira, baita ere, elkartzun-adierazpen hunkigarriak, eta adiskidantza ahantzezin eta iraunkorrak.

Gizakiaren gaiztakeriarik handienetarikoak ageri dira, askotan konpetentzia eta tentsio giroan ematen ditugun lan orduetan. Ez dugu inor gutxi ongi ezagutzen lankide ez den bitartean. Karrikan, jai giroan, aise denborako atsedean uneetan, jator eta adiskidetsu jokatzen duena etsai amorratua bilaka daiteke lantegian.

Gaurko eguna

Handinahaia, diruzalekeria, hurkoarekiko begirune eza tartean, kaleko ezagun atsegina arerio lazgarri eta zapaltzaile suertatzen da zenbaitzuetan. Indarrean dagoen jabe eta morroien arteko klase borrokan, behekoen kalterako jokatzen dute batzuetan maila berekoen artekoek. Zapalduen kontra aritzen dira hainbat aldiz, beraiekin artetik sorturiko ertaineko arduradunak. Jabegoaren defendatzaile sutsu bihurtzen dira produkzioaren etekina beraientzat izanen balitz bezala.

Zapalduen artean, ordea, egun batetik bestera aldatzen da zortea, sosadun eta boteredunak ez baitira, salbuespen bat edo beste kenduta, beren diruaren errentagarritasunaz baino arduratzen eta ondorioz haien kapritxoaren arintasunez saritu lehenbizi eta segidan zigortu egin dezakete menpeko bera, langileen arteko mailak eta diru apurrekin jolastuz.

Gaur zertxobait gure gainean dagoena azpian

edo parean egon daiteke bihar. Noski, handikeriatan eta nola edo hala, ondokoak zapaltzen igotzeko irrikan, horren zabaldua dagoen gaixotasun hori harrapatu dutenek uste dute betirako izanen direla zertxobait goragoko postuen jabe. Gixajoak! Ez da horrela. Kontrakoa erakusten digu batzuetan motza iruditu arren horren laburra ez dugun bizitza honek. Denboraren bueltan ez da hain harrigarri baztertzaila eta zapaltzaile izandakoa, garaia aldatuta, zapalduen aldera laguntza eske etorri behar izatea. Eta hasiera batean mendeku eta mesprezuzko sentimenduak etortzen baldin bazaizkigu ere, nolatan ba ukatuko diogu elkartzasuna gure parekoari, noizbait baztertuen aldeko apustua egin badugu.

Egun txar batean langilearen zintotasuna galdu duena laguntzeak gure duintasuna mantentzen du azkenean dagokion tokian.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Euskal operaren lehen hatsarriak: Etienne Decrept Etxemaite (II)

Decreptek plangintza zehaztu baten barruan sortu zuen bere lana; bere asmoa operaren mirailan euskaldunen izaera desberdinak isladatzea zen, eta horretarako baserria, karrika eta itsasaldea jasoko zuen hirulana idatzi gogo zuen, *Maitena*, *Amatxia*, eta *Lehorrian* operekin, hurrenez hurren, osatua zegokeena



MAITENA OPERAREN FUNTS argumentala ez da bereziki sakona: Lapurdiko Landaburu baserrian, Piarresen alaba nagusia den Maitenak eskapí egiten du etxetik Domingo pelotariarekin Ganis aberatsarekin ez ezkontzearen, aitak nahi duen moduan. Halako batean, etxera itzultzen da, txiro eta alargun, aita urguiltsuaren bihotza minberatzea, kostata baina, lortuz, eta oraino maite duen Ganixekin ezkonduz.

Ez ziren gutxi, bere momentuan, lan honi buruz mintzo zirenak. Gaskuek *Maitena: essais de crítica musical* idatzia agertu zuen Donostiako Barojarenean 1909. berean, batik bat Colinen musika iruzkingarri: Colinen lehenengo lan publikoa izan zen hau, eta Gaskueren ustez, ez da italiar tankerakoa, izan ere, nahiz melodikoa izan, melodiak betegarri armonikoa garaitzen baitu, ez ditu italiar generoaren ezaugarriak; Colinen musika Lapurdiko zenbait herri kantetan oinarriturik dago, eta orduan, Donostiakoa horren goriki arrenkuratzen zuen zortzikoaren arrastorik ez da atzematen. Mujikak, 1913.eko *Euskalerraren Alde* aldizkarian gainbegiratu sakon samar egin zuen Hendaian eginiako errepresentazioaren harian; honetan kexu agertzen zitzaizgun Mujika Hegoaldean zein Iparraldean lana erderaz egin baitzen, benetako barne arima galtzen zelarik. Urkixori eginiako gutunean, Decreptek berak bere antzerkigintzaren nondik norakoak eman zizkion: «*La fin que je m'y suis proposée étant de faire la preuve que le Théâtre Basque peut être aussi passionnat qu'un autre et que l'esquara est assez nuancé pour peindre les multiples aspects de l'âme humaine*», eta euskaraz zenez bezanbatean, Decrept aratz mintzo zitzaion: «*Pour ce qui est du détail, de la facture*

même de ces ouvrages, la critique aura hélas! trop à y reprendre, car l'esquara est d'un maniement horriblement difficile. J'ai essayé d'écrire comme nous parlons, nous autres, Kostatarrak, mais si je reconnais mon infériorité philologique, je peux dire comme notre voisin Montaigne: c'est icy un livre de bonne foy.

Aipatu hirulanaren bigarren emanaldia *Amatxia* izenburuko izan zen: *pastorala kantatua hitz neurthuz eta larriz egiña bi zathitan*, Parisko H. Championen moldiztegian 1914. ean argitaratu zena, baita 1914-1917.eko RIEV aldizkarian. 1913. erako, bai

Decreptek eta bai Colinek erabat bukatu bazeukaten arren, eta Donostiako Orfeoak lehenbizi, eta Bilboko Abesbatzak geroago, antzezpenen jokaldiak hagitz gertuak bazuten ere, 1936.eko gerrateak eten omen zituen asmo guzti hauek, betiko antzadenez. Gertakaria garaikidea zen, besta-berriko zortziurrenean Lapurdiko ostatu batean. Hirulanaren azken operarekin agitutakoa gaitzagoa izan zen alta, *lehorrian*, «*une étude des gens de mer*», aurre-ra jo gabe geratu baitzen, Decrepten paperen artean, eta Colinek musikarik jarri gabe.

Hirulanaz lekot, Decreptek beste opera bat ondu zuen, azken buruan, eta *Maitena*-rekin batera, antzeztu bakarra. *Hauxe da Semetxia*, 1921. ean Donibane Lohitzunen antzeztu zena. Bi alditan argitaratu zen opera honen testua: Baionako *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres, Arts et d'Etudes Régionales*

aldizkariaren XLIV. zenbakian, 1923. ean, eta liburu soil gisa, Baionako Foltzerenean 1924. ean. Lan honen inguruan Laurent Apestegi *Encore Semetxia* artikulua agertu zuen Gure Herria aldizkarian, eta gauza nabaria da Decrept-en lana ez zela bere gustukoa, edo bederen, euskal lantzat ez zuela: «*Nous disions que Semetxia,*

malgré le titre et la langue, n'est pas une pièce basque (...) Une oeuvre littéraire qui n'en tient pas compte et dont l'auteur est d'avis qu'il n'y a que des êtres uniformes sur la terre, pourra situer son sujet en Pays basque ou en Chine, adopter une langue au choix, cette oeuvre sera philosophiquement vraie peut-être, mais en mettra pas en scène

des types de telle race ou de tel pays, sauf pour le costume ou l'habitation. M. Decrept est logique en écrivant une pièce qui n'a rien de spécifiquement basque, il en est plus en se plaignant que nous l'ayons contaté. Lan honen ostean Decreptek lantegi batean giro tutako bi ekintzetako *Lili* izenburuko lana eman zion Colini, baina honek, *Maitena*-ren jokaldi berrietan sarturik, ez zion musikarik jarri, eta ezezagun geratu zaigu Decrepten paperen artean.

Beste lan batzuk ere geratu ziren Decrepten karpetan, Colinek musikatu gabe: *Eginbidia*, hiru ekintzetako lana. Urkixori igorri gutunean aipatzen zuena: «*une étude de petits bourgeois, commerçants, militaires, prêtres*»; hiru ekintzaduna zen *Mandozaña*; hiru ekintzetakoa ere zen *Etxezahar*; Alaba, *bukatu gabe*ko drama ekintza batean; edota *Etxeko aingerua*, bi ekintzadun lana bukatu gabea.



etorri ahalean

Patziku Perurena

Pikoaren erotika erlijiosoa

LEHENGO BATEAN, IRUÑETIK abieran gine-la, Lurdesek zer emanen ahuleria kentzeko eta? piko lehor batzuk! Hura poza nerean, bihotzez haur, eta ahoz rau! Gorputz eta arima ausnarrean nituen nerehala: «Zergatik xoratu izandu ote naute ni, piko ximur txarrok honenbeste?». Eta oroipen mordoan pasa nuen buruan istanpatean.

Negu bidean, mutikotako eskekontuak zirela eta, etxe askotan sosik ez baina, urrak, intxaurrak eta piko lehor batzuk eman gabe nekez utziko zintuzten. Eta nik beti, piko ximurta haietara eramaten nizun begia, urrak eta intxaurrak bezala kraskatu beharrik ere ez eta, lehenbailen txurten okertua bilatuz hortzak luzatzeko. Bai goxoa, piko idortua! Eta nolako atsegina irudimenak: munduko urre pipitta guziekin betetako larruxakua xahar ximurta haietako bakoitza ez tatan gordea bezala, ikusi aldiro!

Bai, fruitu sorgina duzu piko, eta endemas piko idortua, inoren antzutasuna edo ximurtasuna adierazteko orduan, batik bat: «piko melatua baino ximurragoa duk atso zar zeken hori; mutilzar horrekin ezkondu ni? piko idortua baino ximurrago egina edukiko din eta gaurgero...». Halaxe egin ditu pikoak ahotan ezti euskarak.

Piko hezeak ere badu, ordea, zentzu sorginik gurean; erotikoa batez ere. *Pikoa* emakumearen sexua da; *Pikoaldia* hilekoa; *Piko jatea* ezpainak beteko elkar musukatze gozoa. Izanez ere, atseginez lehortutako piko umoberriaren irudia, azalez larrukara horista lehun guri eta barrenez dena odol gorri gozo eta hazi zuri heze nahaste, aproposa baita erotikaren errorik sakonenak adierazteko.

Eta nork ez du aditu honako kopia honenik:

Baratzako pikoak hiru txortent ditu

Mutil neskazaliak hankak arin ditu

Hankak arin-arin ta burua arinago

Dantzan hobeki daki artajorren baino.

Aldaera ttiki batzuk (*hiru xerto; hiru hosto*) goiti behiti, Euskal Herri osora zabalduta da noizbait, dantza klase bati ariñ-ariña izen emateraino. Erotika nabaria du kopia horrek, baina, inor ohartu ote da bereziki «*baratzako pikoak hiru txortent*» izate horrek funtsean lukeenez? Hiru *xerto* edo *txortent* horiek zeren metafora ote dira? Eta *txortent ari* nondik sortu ote da? Gure euskal sena ez ote da ya gauza, metafora erotiko horiek sumatzeko?

Haragizko sinbolo erotikorregatik edo, herejia eta sorginkeria kontuetan ere maiz ageri da piko. Kristauren jainkoa iraintzeko keinurik zakarrena «*la higa*» izenekoa zen, eta euskal sorginen aurkako epailetan usu agertzen da. Ukabila itxi eta hatz haundiaren burua ondoko beste bi hatzen tartertik agertuz egiten zen keinua, pikoaren irudia gogoratuz, horregatik «*hacer la higa*» esanera; erdara zaharrean, arbolak eme baitziren: *la alameda, la robla*, eta gisako toponimo askok oraindik ongi salatzen duten bezala. Baina, umetan, sudur muturra kendu zigutelako imintzioa eginez, adar jotzeko egiten ziguten keinu horrek, pikoaz batera, bistan da, aluan sartutako zakila irudikatzen duela batez ere; baina ukabila itxi eta erdiko hatza luzatuz ere egiten da, *izorra!* esanez; eta aditz honek ere horixe adierazten digu sortzez: fornikatzea.

Ziria

• Motxorrosolo •

Behartuta

RICARD EGUNA, UDABERRIAREN BIHOTZA, HAINBAT AMETSEN PAUSALEKU, egitasmoak, ausarki, gehienak hasi eta buka tenore beretsuan, *haboro ekipin*. Emeki-emeki, afera emendatzen ari delako susmoa. Orreaga lagun. Mila bide, mamu bakarra. Sorogainen gaindi, batze-urruntzea. Beharrak batzen gaitu. Lehia hasi da. Muga zilatzeke ez da lurrik higitu behar.

Manuel Sanz

Almadiazaina

«Almadia ez da gelditzen, eta puntakoaren abilezian dago guztia»

Errepide estu eta malkartsuetatik ezin, eta Ezka ibaitik barna jaitsi izan ziren 50eko hamarkadara arte almadiak.

Esako urtegiaren eraikuntzak eta garraioan aurrerapenak atzean utzi du egurra eramateko aspaldiko tradizioa izandakoa. Gaur eta bihar Erronkariko Burgi herrian ospatuko den Almadien Eguna aitzakiatzat hartuz, ofizio hura gogoratu du Manuel Sanz almadiazain izandakoak.



● MIKEL SAIZ

AKER LARRUZ EGINDAKO ESTAL-
kia bizkarrean, galtza eta
alkandora urdinak soinean eta
hanketan abarkak dituela, alma-
dia gainean jaitsiko du bihar
ibaia Sanzek. Aurten ere Olegia-
tik, Burgitik bost kilometro gora,
herriko zubi erromatarra iragan
arteko bidea egingen du. Garai
batean ogibide izan zuena ilustoz
oroitzen du burgiarrak.

■ **Almadiazaina izana zara. Nola
hasi zinen?**

XVI. mendeaz geroztik erabil-
tzen zen garraioa da. Nire
familia horretan aritzen zen.
Aurrekoak zein gu egurretik bizi
izan gara. 50eko hamarkadara
arte Erronkari bailaran biztanle-
riaren %80 egurretik bizi zen, eta
gainontzekoa ganaduzalea zen.
Aitak mendiko lur sailak erosten
zituen, hango egurra landu eta
lokatziraino eramanez ondoren
almadiak egiten genituen. Bost
anaia ginen eta egurraren sale-
rosketaz bizi ginen. Baziren ni
baino egur gehiago erabili zute-
nak. Anaietan gazteenetakoa naiz
eta gutxiago ikusi dut. Tokatu
zait atzean jaitea. Atzean eskar-
mentu gutxi duena joaten da,
aurrean handia behar delako.
Almadia ez da autoa edo kamioia
bezala, balaztari eman eta gelditu
egiten dena. Almadia ez da geldit-
zen, eta aurrekoaren, puntakoar-
en abilezian dago guztia. Alma-
diainak adituak ziren, ez zen
erraza hainbeste egur garraia-
tzea. Jakin behar zuen non zego-
en bihurtzea, harria, mehargu-
nea, ur-lastera edota ur-aldapa.
Era berean, lana eskergabea da;
jaitsi behar izaten zuten egural-
di oso txarra zegoenean, hotz
handia egiten zuten eta galtzak
ere izoztu egiten ziren askotan.

soslaia

Manuel Sanz Zabalza
burgiarrak 67 urte bete
berriak ditu. Erretiroa duela
bi urte hartu bazuen ere,
herrian duen zerratokira
egunero hurbiltzen da
guztia nahi bezala doala
ziurtatzeko. Irakurtzea oso
gustuko du, batez ere elizako
testu eta liburuak. Iruñean duten
etxera ere oso gustura joaten da
ahal duenean.

Sanz 1992an sortu zen
Almadiazain Elkarte
presidentea da. Almadien
Egunaren antolatzaileetako bat,
seme-alabarik ezean, herriko
gazteei almadiak nola egin eta
Ezka ibaitik zehar nola garraiatu
erakusten aritzen da. Biharko
jaitsiera izanen da horren lekuko,
berak eta beste batzuek garai
batean beharra izan zutena
gogoratzeko aukera izanen
baitute.

Egunotan zerura begira dabil
eguraldiaz kezkatuta. Eskak ur
gehiegi badarama Erronkarin XVI.
mendetik ezagutzen diren
almadiak jaitea arriskutsua izan
daitekeelako. Aurten bi egunetara
luzatu da jaitza, eta jende asko
erakarriko duen itzaropena du.
Berak, behintzat, dena prest du
11:00etan Olegiatik abiatzeko.
Zeruak, zer dakarren ikusi behar.

Baina eguraldi onarekin almadi-
zainok gozatu egiten genuen,
leku oso zailtan egur asko
garraiatzeko harro sentiarazten
zintuen.

■ **Zein urtetan ibili zinen?**

1952an izan zen azken jaitsie-
ra. Esako urtegiak uharka itxi
egin zen eta akabo. Dena den,
urtegi egin ez balitz ere, berdin-
berdin gertatuko zen, errepidez
egindako garraioak hartu ziolako
lekuko ibaiz ibaikoari. Urte
horretan guk jaitsi genituen
azkeneko almadiak.

■ **Momentu txarrak edo arris-
kutsuak pasatu izan dituzu
almadiak jaisten?**

Bai. Esperientzia gutxiago du
baina aurrean joaten zirenei
hainbat gorabehera entzun izan
dientz kontatzen, batez ere uharke-
tan. Burgiko uharka oso zaila
zen: ikusi izan dut arraunak per-
sona bota eta igeri egiten ahal
zen moduan, edo herrian dagoen
zubi erromatarren parean egur-
ra gurutzatzen. Egoera oso arris-
kutsuak gertatu izan dira.

■ **Nola egon behar du ibaiak
almadia ongi jaisteko?**

Urak puntuan egon behar du.
Hori gertatuko da almadiak
garraiatzeko behar adina ur jai-
sten denean, ez gehiegi eta ez
eskas. Ur eramanez aproposarekin
hobeki jaisten zara leku arrisku-

tsuetan. Hala ere, jaitsi izan gara
gutxierekin eta askorekin, jakina,
batzuetan ezin baita aukeratu.

■ **Gutxi dagoenean almadiak
behea jotzen du. Eta asko
dagoenean, zein da arriskua?**

Arriskua ibaiaren zati zailtan
dago, ez delako ikusten traba
non dagoen. Arroka edo harri
batekin talka egiteko arriskua
duzu, egurra desegin eta istripua
izan dezakezu. Hala ere, jaitsiera
oso arriskutsuak asko izan diren
arren, ez dira istripu asko gerta-
tu. Ezagutu ditudanetan ez da
inor hil. Larriena Arbaiungo
arroilan gertatutakoa izan zen;
oso leku arriskutsua zen eta han
ur doiarekin sartu behar zen,
gehiegi edo gutxiagorekin ezin
zelako. Ibaia nola jaisten zen kal-
kulatzen egoten ziren erabat.
Burgiko bik oso istripua izan
zuten; bata hil egin zen istripua-
ren ondotik eta bestea herren gel-
ditu zen. Beti izan dira istripuak,
baina ibiltzen ginenerako ez da
ezbehar asko gertatu.

■ **Egunotan oso bizi dator
ibaia, ongi dago biharko?**

Ongi doa baina indartsu
samar. Dena den, jaitsi daiteke,
egiten den ibaiaren zatia ez dela
ko arriskutsua. Puska arrisku-
tsuena Burgiko uharka da, han
almadia urperatu daitekeelako.
Aurrean doana urpean sartu eta

ibaiaren alde batera zein bestera
desbidera daiteke. Arriskua izan
daitekeen leku bakarra hori da.
Ikusi beharko.

■ **Zure umeei erakutsi diezu?**

Ez dut seme-alabarik baina
erakutsi diet herriko gazteei.

■ **Beste garai bat zen eta bizi-
tzeko modua ere erabat
ezberdina, faltan botatzen
duzu?**

Ez. Badaude lan egiteko beste
moduak. Gainera, bizi modu
hura egun ezinezkoa litzateke, ez
duelako bererik. Orduan jende
ugari enplegatzen zen egurraren
inguruan, baina etorri dira
aurrerakuntzak eta akabo. Tris-
teena da egurrarekin lan egiteko
modu hori desagertu zenean bai-
lako jende askok alde egin
zuela, ez zegoelako lanik.
Herriak hustu egin ziren, eta
orduan, aldiz, hemen zeuden.
Ezberdintasun bat zegoen.
Almadiazainek eta egurketariek
ongi irabazten zuten. Lantegi
bateko soldataren halako hiru
izaten zuten. Almadiazainaren
lana gogorra zen, baina ongi
ordaindua zegoen. Egun oso
gutxi egiten dute lan: bospaseik
egiten dute orduan ehundaka
lagunek egiten zutena. Teknika
berriekin lan asko kendu da.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Pello Goñi

Plaza hila

INOIZ ERABILTZEN EZ DEN PLAZA BAT, beti hutsik dagoena, kristoren porrot urbanistikoa da. Frustrazio ikaragarria izan beharko luke plaza diseinatu edo eraiki duen arkitektoarendako, suspentsio hutsa, hitz bitan esanda.

Plaza horien egileak abortua izan balute bezala sentitu beharko lirateke; azken batez, hilik sortu baitzaizkie berez jendea bil dadin diseinatuta egon beharko liratekeen gune horiek.

Zorigaitzez, alde guztietarik zabaltzen ari den Iruñea berria plaza hilez josita dago. Hildako plaza berri horietan haize-zurrumbilok astindutako zaborra besterik ez da mugitzen, basamortuan bezala.

Antzeko zerbait gertatu zaio Barñaini, filosofia berberaz eraiki (hondatu) baita, hutsaren filosofiaz. Honatx azken adibidea: Rafael Alberti Plaza, poeta zaharraren heriotza hurbila iragarri nahiko baligu bezala eraiki dena.

Arkitektoek bizkarra eman bide diote behin-betikoz herri orotan historian zehar jendearteko harremanak bideratu dituen guneari. Garai batean plaza mundua zen (ikus. Etchepare).

Gaur egungo plazetan, ordea, ez dago plazagizonik ezta azokarik ere, eta ez da deus plazaratzen, hutsa eta hautsa besterik ez. Gaur egungo plazak ez dira agoraren ondorengoak, basamortuarenak baizik. Gaur egungo plazek ez dute gizatasunik, errealtate birtuala baino hotzagoak baitira, hainbat arkitektu bezalaxe.

Sokratesek jai izanen luke gaur egungo plazetan, bakardadeak jota hiltzera kondenaturik egonen litzatekeelako. Gaur egungo plazek goibelarazten gaituzte, baina dirudienez afera honetan inork ez du ardura hartuko.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Iruñea:** Tarzan, Corazon del sapo, Har ditzan eta Leihotikan taldeak joko dute gaur, 11:00etan, Txantreako txosnetan.
- **Erratzu:** Kontzertua eskainiko dute Zup, Borrokan, Petti, Gutariko bat, Pottoka, Radic nel Cemento eta Cargol's taldeek, bihar, 20:30etan.

ERAKUSKETAK

- **Barñain:** 'Eskubideetatik egi-teetara' erakusketa ikusteko aukera dago Kultur Etxean maiatzaren 15era arte. Mugarik Gabe eta Amnistia Internazionalen antolatuta giza eskubideen 50. urteurrena gogoratzen du.

DANTZA

- **Iruñea:** Jesus Zamarbide dantzari nafarrari omenaldia egingen zaio bihar, 21:00etan, Gayarre antzokian. Etzi, Cristina Hoyosen baleta ariko da ordu eta toki berean: *Arsa y toma* ikuskizuna eskainiko du. Datorren asteartean, berriz, txanda Tempomobile konpainiaren txanda izanen da. *Open ground*, *Casi* eta *Bihotzaren hegoak* lanak taularatuko ditu. Musika zuzenean izanen da Kepa Junkera trikitilariaren eskutik.

BESTELAKOAK

- **Altsasu:** Artisau erakusketa izanen da etzi Foruen Plazan, 11:00etan. Arratsaldeko 19:00etan, berriz, plazako kiosko berria inauguratzeko musika eta dantza emanaldia eskainiko dute herriko musika eta dantza taldeek.
- **Iruñea:** Gaztediaren Etxeak ikastaroak antolatu ditu maiatzarako. Orotara lau dira: Afrikako erauspena,

kontaketa laburrak, garapen pertsonala eta masajea. Ikastaroek ordutegi ezberdinak dituzte. Informazio gehiago edo izena eman nahi izanez gero, deitu 24-56-27 telefonora.

- **Barñain:** Reichen terapia jarraitzen duen eskolak bizi-pen tailerra antolatu du

datorren ostiralerako. Maite S. Pinaguak emanen du. Izena eman nahi duenak edo informazio gehiago lortu 18-43-71 edo 18-13-97 telefonotara deitu behar du.

- **Iruñea:** Sakanako X. Ibilaldia egingen da datorren igandean, maiatzaren 10ean. Partehartzaileak 06:00etan aterako

dira Irurtzungo Iratxo tabernatik. Izena maiatzaren 8a baino lehen eman behar da 50-08-82 telefonoan.

- **Iruñea:** Justo de la Cuevak *Papel del frente obrero de ETA en los 60 y 70* hitzaldia eskainiko du, datorren asteazkenean Aitzina herriko tabernan 09:30etan.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini



non zure
gogoa,
han gure
urrina.
oro har

Amodioak
baditu bere
arriskuak,
baina
oro har
merez du.